



ORDEN DE 21 DE ENERO DE 2020, DE LA CONSEJERA DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO, POR LA QUE SE APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL PROYECTO DE DECRETO DE REGISTRO DE ASOCIACIONES DE PERSONAS CONSUMIDORAS Y USUARIAS DE EUSKADI.

Mediante Orden de 7 de noviembre de 2019, de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo, se dio inicio al procedimiento de elaboración del decreto de registro de asociaciones de personas consumidoras y usuarias de Euskadi.

El artículo 7.1 de la Ley 8/2003, de Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, estos deberán contar con la aprobación previa del órgano que haya dictado la orden de iniciación, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan.

Por ello, visto el texto del proyecto de decreto elaborado,

RESUELVO:

Primero.- Aprobar, con carácter previo, el texto del proyecto de decreto de registro de asociaciones de personas consumidoras y

AGINDUA, 2020KO URTARRILAREN 21EKOA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, EUSKADIKO KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ELKARTEEN ERREGISTROARI BURUZKO DEKRETU PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEN DUENA.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2019ko azaroaren 7ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkartearen erregistroari buruzko dekretua egiteko prozedurari.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren 8/2003 Legearen 7.1 artikulua arabera, xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko die haiei, dagozkion negoziazio-, entzunaldi-eta kontsulta izapideak egin aurretik.

Horregatik, landutako proiektuaren testua aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Aurrez onestea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkartearen erregistroari buruzko dekretua

<p>usuarias de Euskadi, que se recoge como anexo a la presente disposición.</p> <p>Segundo.- Hacer pública la presente orden de aprobación previa, junto con el texto del proyecto normativo, en el espacio colaborativo jurídico en red “Legesarea”.</p> <p>Tercero.- Ordenar la continuación del procedimiento de elaboración del proyecto de decreto, de conformidad con los trámites establecidos en la citada Orden de 7 de noviembre de 2019 y en la Ley 8/2003, de Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.</p> <p>En Vitoria-Gasteiz, a 21 de enero de 2020.</p>	<p>egiteko proiektuaren testua: xedapen honen eranskin gisa jaso da.</p> <p>Bigarrena.- Aldez aurreko onarpenaren agindu hau, arau-proiektuaren testuarekin batera argitaratzea, ezagutza partekatuaren “Legesarea” lankidetzajuridikoko espazioan.</p> <p>Hirugarrena.- Dekretua egiteko proiektua lantzeko prozedurari jarraipena emateko agintzea, aipatu 2019ko azaroaren 7ko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 8/2003 Legean ezarritako izapideak jarraituz.</p> <p>Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 21ean.</p>
--	--

SONIA PÉREZ EZQUERRA

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA.
CONSEJERA DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO.

ANEXO

DECRETO/2020, de de, de registro de asociaciones de personas consumidoras y usuarias de Euskadi.

La Ley 6/2003, de 22 diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias de Euskadi, dispone en su artículo 30 a) que las asociaciones de personas consumidoras y usuarias, así como las federaciones y confederaciones constituidas por ellas, para disfrutar de los beneficios que la normativa aplicable les otorga, deben estar inscritas en el registro de asociaciones de personas consumidoras y usuarias de Euskadi, así como tener su domicilio en la Comunidad Autónoma de Euskadi y reunir las condiciones y requisitos que reglamentariamente se establezcan para cada tipo de beneficio, para lo cual se tendrán en cuenta criterios de implantación territorial, número de asociados y programa de actividades.

Actualmente, la regulación vigente se contiene en el Decreto 249/1985, de 30 de julio, por el que se modifica el Decreto de 17 de agosto de 1981, sobre creación del Censo de Asociaciones de Consumidores, según lo establecido en la Ley sobre el Estatuto del Consumidor, que se dictó en desarrollo de la Ley 10/1981, de 18 de noviembre. Dicho decreto, por un lado, adscribe el censo a la Dirección de Consumo, órgano actualmente inexistente en la estructura del Gobierno Vasco, cuyas competencias han sido transferidas a Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo, por la Ley 9/2007, de 29 de junio, que crea el organismo autónomo; por otro, regula las condiciones y los efectos derivados de la inscripción de las asociaciones, estableciendo como requisitos contar con un mínimo de 100 miembros y disponer de unos ingresos mínimos anuales de 100.000.- pesetas.

Dado el tiempo transcurrido desde su entrada en vigor, la norma precisa una actualización, que permita su adaptación a la ley y a las circunstancias actuales, tanto en su denominación como en la regulación de los requisitos y efectos de la inscripción.

Con tal finalidad, el presente decreto adscribe el registro de asociaciones de personas consumidoras y usuarias de Euskadi a Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo y lo configura como un registro de carácter administrativo, público y gratuito, cuya gestión se hará de forma telemática.

La norma prevé la inscripción en el registro de las asociaciones de personas consumidoras y usuarias que lo soliciten y cumplan los requisitos establecidos por la Ley 6/2003, de 22 diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias de Euskadi, y por la propia norma reglamentaria.

En consonancia con la citada disposición legal, el decreto otorga la consideración de asociaciones de personas consumidoras y usuarias tanto a las asociaciones en sentido estricto, que carezcan de ánimo de lucro y cuya finalidad sea la protección y defensa de los intereses de las personas consumidoras y usuarias; como a las entidades constituidas por personas consumidoras y usuarias con arreglo a la legislación cooperativa, entre cuyos fines figure necesariamente la educación y formación de sus socios y socias y estén obligadas a constituir un fondo con tal objeto; y a las federaciones y confederaciones de tales entidades.

Para poder ser inscritas, las asociaciones de personas consumidoras y usuarias han de tener su domicilio en la Comunidad Autónoma de Euskadi y desarrollar sus actividades en tal

ámbito. Además, deben cumplir los siguientes requisitos: tener un mínimo de 100 personas socias al corriente de pago de sus cuotas o aportaciones; poner a disposición de sus asociados y asociadas o del público en general, un servicio de atención e información a las personas consumidoras y usuarias, de carácter presencial o telemático, que cuente en todo caso con un teléfono y una dirección de correo electrónico de contacto; y tener un presupuesto de actividades superior a 10.000 euros anuales.

El decreto regula igualmente la solicitud de inscripción y prevé la documentación que la ha de acompañar. Una vez tramitada la solicitud, la Dirección de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo habrá de dictar y notificar la correspondiente resolución en el plazo de cuatro meses, transcurrido el cual, se entenderá estimada por silencio administrativo.

El decreto determina los datos que serán objeto de inscripción en el registro, cuya modificación habrá de ser comunicada por las asociaciones en el plazo de un mes. Igualmente, establece la obligación de las asociaciones de solicitar su baja en el registro cuando dejen de cumplir los requisitos exigidos para la inscripción. Así mismo, prevé que pueda acordarse la baja de oficio en tres casos: cuando concurra el citado incumplimiento de los requisitos exigidos para la inscripción -y, naturalmente, no se haya solicitado la baja-; cuando se encuentren en alguno de los supuestos previstos por el artículo 33 de la Ley 6/2003, de 22 diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias de Euskadi; y cuando no comuniquen las modificaciones que afecten a los datos inscritos o no cumplan las obligaciones de información que establece el artículo 10. La resolución de baja de oficio se dictará siempre tras la tramitación de un procedimiento en el que se dará audiencia a la asociación interesada.

En coherencia la naturaleza del registro, el decreto declara que los datos objeto de inscripción tienen carácter público.

Finalmente, el citado artículo 10 establece, de un lado, que las asociaciones inscritas deben presentar en el primer trimestre de cada año natural una serie de documentos con objeto de justificar el mantenimiento de los requisitos de la inscripción y, de otro, su obligación, con carácter general, de poner a disposición de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo cualquier información y documentación que les sea requerida para comprobar el cumplimiento de lo establecido en la norma.

La disposición adicional primera dispone que las asociaciones que se encuentren inscritas en el Censo de Asociaciones de Consumidores, regulado por el Decreto 249/1985, de 30 de julio, para pasar a integrar el registro objeto de regulación por el presente decreto, han de cumplir los requisitos establecidos en el mismo, a cuyo efecto deberán presentar nueva solicitud de inscripción, en los términos del artículo cuatro, en el plazo de seis meses a partir de su entrada en vigor. Transcurrido dicho plazo, las inscripciones del antiguo Censo quedarán sin efecto.

Por último, la disposición adicional segunda del decreto establece la inclusión de la variable "sexo" en los documentos de recogida de datos derivados de la aplicación de lo dispuesto por el decreto; la disposición derogatoria prevé la derogación del Decreto 249/1985, de 30 de julio, por el que se modifica el Decreto de 17 de agosto de 1981, sobre creación del Censo de Asociaciones de Consumidores, según lo establecido en la Ley sobre el Estatuto del Consumidor; y la disposición final señala la entrada en vigor de la nueva norma.

El decreto se estructura en 10 artículos, dos disposiciones adicionales, una disposición derogatoria y una disposición final, con el siguiente contenido: el artículo 1 establece el objeto de la norma y la naturaleza y adscripción del registro, así como el carácter telemático de su gestión; el artículo 2 define las asociaciones que serán objeto de inscripción; los artículos 3, 4 y 5 establecen, respectivamente, los requisitos, la solicitud y la resolución de inscripción en el registro; el artículo 6 prevé el contenido de la inscripción registral; el artículo 7, la modificación de los datos objeto de inscripción y el artículo 8, la baja de la asociación en el registro; el artículo 9 regula la publicidad de la información registral y el artículo 10, finalmente, las obligaciones documentales de las asociaciones inscritas.

La norma contiene también dos disposiciones adicionales, la primera, sobre la pérdida de eficacia de las inscripciones realizadas en el vigente Censo de Asociaciones de Consumidores, y la segunda, sobre la inclusión de la variable “sexo” en la recogida de datos; una disposición derogatoria, que deroga expresamente el decreto vigente, y una disposición final, sobre su entrada en vigor.

En la tramitación de este decreto se han emitido los informes preceptivos, en aplicación de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en el Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 21 de agosto de 2012, por el que se aprueban las directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día de 2020,

DISPONGO:

Artículo 1.- Disposiciones generales.

1.- El presente decreto tiene por objeto regular el registro de asociaciones de personas consumidoras y usuarias de Euskadi.

2.- El registro de asociaciones de personas consumidoras y usuarias de Euskadi tiene carácter administrativo, público y gratuito y está adscrito a Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

3.- La gestión y tramitación de solicitudes y comunicaciones ante el registro se realizará de forma telemática.

Artículo 2.- Asociaciones objeto de inscripción.

1.- Se inscribirán en el registro las asociaciones de personas consumidoras y usuarias que lo soliciten, siempre que cumplan los requisitos establecidos por la Ley 6/2003, de 22 diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias de Euskadi, y por el presente decreto.

2.- A los efectos del presente decreto, tienen la consideración de asociaciones de personas consumidoras y usuarias:

a) Las asociaciones sin ánimo de lucro cuya finalidad sea la protección y defensa de los intereses de las personas consumidoras y usuarias, bien con carácter general o en relación con productos o servicios determinados, que se constituyan de acuerdo con la legislación vigente en materia de asociaciones.

b) Las entidades constituidas por personas consumidoras y usuarias con arreglo a la legislación cooperativa, entre cuyos fines figure necesariamente la educación y formación de sus socios y socias y estén obligadas a constituir un fondo con tal objeto, según su legislación específica.

c) Las federaciones y confederaciones de las asociaciones y entidades a que se refieren los apartados anteriores.

3.- Las referencias que esta norma realice a las asociaciones de personas consumidoras y usuarias, salvo que expresamente se indique lo contrario, se entenderán hechas a todas las entidades señaladas en el apartado precedente.

Artículo 3.- Requisitos para la inscripción.

1.- Para ser objeto de inscripción, las asociaciones de personas consumidoras y usuarias han de cumplir los siguientes requisitos:

a) Tener su domicilio en la Comunidad Autónoma de Euskadi y desarrollar sus actividades en dicho ámbito.

b) Tener un mínimo de 100 personas socias al corriente de pago de sus cuotas o aportaciones.

c) Poner a disposición de sus asociados y asociadas o del público en general un servicio de atención e información a las personas consumidoras y usuarias, de carácter presencial o telemático, que cuente en todo caso con un teléfono y una dirección de correo electrónico de contacto.

d) Tener un presupuesto de actividades superior a 10.000 euros anuales. En el caso de las cooperativas, el presupuesto ha de referirse a actividades relacionadas con la educación y formación de sus socios y socias, con cargo al fondo constituido con tal objeto.

2.- Cuando se solicite la inscripción de una federación o confederación de asociaciones, a los efectos del cumplimiento de los requisitos establecidos en el presente artículo, se tendrá en cuenta el número de socios, las actuaciones del servicio de atención e información y la actividad desarrollada, en su conjunto, por todas las asociaciones o federaciones que las integren.

3.- No podrán inscribirse las asociaciones que se encuentren en alguno de los supuestos previstos por el artículo 33 de la Ley 6/2003, de 22 diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias de Euskadi.

Artículo 4.- Solicitud de inscripción

1.- Para ser inscrita en el registro de asociaciones de personas consumidoras y usuarias de Euskadi, la asociación interesada habrá de presentar la correspondiente solicitud.

2.- La solicitud ha de ir acompañada de la siguiente documentación:

a) Documento constitutivo y estatutos de la entidad y, en el caso de federaciones o confederaciones, además, acuerdos de constitución y estatutos de las asociaciones o de las federaciones que las integren.

b) Certificado del secretario o secretaria de la entidad, con el visto bueno de la presidencia, en el que se acredite el cumplimiento de los requisitos señalados en el artículo 3 del presente decreto y, concretamente:

1) Denominación de la asociación y número de identificación fiscal.

2) Domicilio de la asociación y, en el caso de tenerlas, de sus delegaciones.

3) Composición de los órganos rectores de la asociación e identidad y número de identificación fiscal de las personas que los integran.

4) Número de personas asociadas al corriente de pago de las cuotas o aportaciones.

5) Identificación del servicio de atención e información a las personas consumidoras y usuarias, con indicación de los medios electrónicos, el teléfono y la dirección de correo electrónico de contacto y, en su caso, la localización de las instalaciones utilizadas.

6) Presupuesto anual de ingresos y gastos, con indicación del importe anual de cuotas sociales, en el caso de las asociaciones en sentido estricto, y del fondo destinado a los fines de educación y formación de sus socios y socias, en el caso de las cooperativas.

7) Cuantía anual de la cuota que debe abonar una persona asociada.

8) Memoria de actividad anual. Cuando se trate de una cooperativa, dicha memoria ha de referirse a la actividad desarrollada para la educación y formación de sus socios y socias, con cargo al fondo constituido con tal objeto.

9) En su caso, federación o confederación a la que pertenece.

3.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, no será necesario aportar los documentos señalados en el apartado anterior de este artículo en los siguientes supuestos:

a) Cuando los documentos ya se encuentren en poder de Kontsumobie-Instituto Vasco de Consumo.

b) Cuando los documentos hayan sido elaborados por cualquier otra administración y la asociación no se haya opuesto a que se consulten o sean recabados.

c) Cuando los documentos se hayan aportado a otra administración y la asociación no haga constar de forma expresa su oposición a que sean recabados, ni una ley especial aplicable requiera su consentimiento expreso. A tales efectos, la asociación deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los documentos.

4.- Excepcionalmente, si Kontsumobie-Instituto Vasco de Consumo no pudiera recabar los citados documentos, podrá solicitar su aportación a la asociación.

Artículo 5.- Resolución de inscripción.

1.- Si la solicitud estuviera incompleta, se concederá a la asociación un plazo de 10 días hábiles para su subsanación, advirtiéndole de que, en el caso de no cumplimentar el trámite, se le tendrá por desistida de su petición.

2.- Si la solicitud cumple los requisitos exigidos para la inscripción de la asociación, la Dirección de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo dictará resolución en tal sentido.

3.- Si la asociación no cumple alguno de los requisitos exigibles, la Dirección de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo denegará la inscripción, mediante resolución motivada.

4.- El plazo para dictar y notificar la resolución es de cuatro meses desde que la solicitud haya entrado en el registro electrónico de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

5.- En el caso de no haberse notificado la resolución en dicho plazo, se entenderá estimada por silencio administrativo.

Artículo 6.- Contenido de la inscripción.

La inscripción de la asociación contendrá los siguientes datos:

a) Nombre y número de identificación fiscal de la asociación, con indicación de si es una asociación en sentido estricto, una entidad constituida al amparo de la legislación sobre cooperativas o una federación o confederación de las anteriores.

b) Número de inscripción en el registro.

c) Ámbito territorial y funcional de actuación, indicando si tiene como finalidad la defensa de las personas consumidoras y usuarias en general o en relación un tipo de productos o servicios determinados.

d) Nombre y apellidos de las personas titulares de los órganos rectores de la asociación.

e) Número de personas asociadas que se encuentren al corriente de pago de las cuotas o aportaciones, al uno de enero de cada año.

f) Cuantía anual de la cuota que debe abonar cada persona asociada.

g) Servicio de atención e información a las personas consumidoras y usuarias, que ofrezcan, con indicación de los medios electrónicos, el teléfono y la dirección de correo electrónico de contacto y, en su caso, localización de las instalaciones utilizadas.

h) En su caso, federación o confederación a la que pertenece.

i) Fecha de la inscripción de la asociación, de las modificaciones que se produzcan y de su baja en el registro.

Artículo 7.- Modificación de los datos objeto de inscripción.

1.- Las asociaciones de personas consumidoras y usuarias inscritas en el registro deberán comunicar a Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo cualquier modificación que se produzca en los datos objeto de inscripción, siempre que la misma no suponga la pérdida de alguno de los requisitos necesarios para la inscripción.

2.- La comunicación de modificaciones irá acompañada de la documentación que acredite el hecho a que se refiera.

4.- El plazo para presentar la comunicación será de un mes desde que tenga lugar la modificación.

Artículo 8.- Baja de la asociación en el registro.

1.- Cuando la asociación deje de cumplir alguno de los requisitos exigidos para su inscripción, de conformidad con lo dispuesto en el presente decreto, deberá solicitar su baja en el registro.

2.- La solicitud habrá de cursarse en el plazo de un mes desde que se produzcan los hechos que la motiven.

3.- La baja se acordará por resolución de la Dirección de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo, que deberá dictarse y notificarse en el plazo de tres meses desde que la solicitud haya entrado en el registro electrónico del organismo autónomo. En el caso de no haberse notificado la resolución en dicho plazo, se entenderá estimada por silencio administrativo.

4.- La baja en el registro podrá ordenarse igualmente de oficio, en los siguientes supuestos:

a) Cuando la asociación inscrita haya dejado de cumplir los requisitos exigibles para su inscripción, de conformidad con lo dispuesto en el presente decreto.

b) Cuando se acredite que la asociación se encuentra en alguno de los supuestos previstos por el artículo 33 de la Ley 6/2003, de 22 diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias de Euskadi.

c) Cuando la asociación incumpla las obligaciones establecidas por los artículos 7 y 10 del presente decreto.

5.- En tales casos, la baja podrá acordarse por resolución motivada de la Dirección de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo, tras otorgar trámite de audiencia a la asociación afectada.

Artículo 9.- Publicidad de la información registral.

1.- Los datos objeto de inscripción en el registro de asociaciones de personas consumidoras y usuarias de Euskadi tienen carácter público.

2.- La Dirección de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo, a solicitud de persona interesada, certificará el contenido de las inscripciones del registro.

Artículo 10.- Obligaciones de información de las asociaciones inscritas.

1.- Las asociaciones de personas consumidoras y usuarias inscritas deberán presentar, en el primer trimestre de cada año natural, la siguiente documentación:

a) Memoria descriptiva de las actividades realizadas en el año anterior.

b) Liquidación del presupuesto de ingresos y gastos del año anterior.

c) Memoria de actividades programadas para el año en curso.

d) Presupuesto de ingresos y gastos del año en curso, con indicación del importe anual de cuotas sociales y, en el caso de las cooperativas, del fondo destinado a sus fines.

e) Cuantía anual de la cuota que debe abonar una persona asociada.

f) Número de personas asociadas que se encuentren al corriente de pago de las cuotas o aportaciones, al uno de enero.

2.- Cuando se trate de cooperativas, los documentos señalados en los apartados anteriores se limitarán al ámbito de la actividad de educación y formación de sus socios y socias y al fondo destinado a tal objeto.

3 - Las asociaciones de personas consumidoras y usuarias inscritas pondrán a disposición de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo cualquier información y documentación que les sea requerida para el cumplimiento de lo establecido en el presente decreto.

Disposición adicional primera.- Censo de Asociaciones de Consumidores vigente.

1.- Las asociaciones que, a la entrada en vigor del presente decreto, se encuentren inscritas en el Censo de Asociaciones de Consumidores regulado por el Decreto 249/1985, de 30 de julio, por el que se modifica el Decreto de 17 de agosto de 1981, sobre creación del Censo de Asociaciones de Consumidores, según lo establecido en la Ley sobre el Estatuto del Consumidor, para ser incluidas en el registro de asociaciones de personas consumidoras y usuarias de Euskadi, deberán cumplir los requisitos establecidos en el presente decreto y presentar nueva solicitud de inscripción, en los términos del artículo 4.

2.- El plazo para solicitar la inscripción en el registro de asociaciones de personas consumidoras y usuarias de Euskadi será de seis meses a partir de la entrada en vigor de este decreto.

3.- El procedimiento de inscripción se resolverá conforme a lo establecido en el artículo 5, si bien el plazo para dictar y notificar la resolución será de seis meses.

4.- Las inscripciones del Censo de Asociaciones de Consumidores, regulado por el Decreto 249/1985, de 30 de julio, mantendrán plena eficacia durante el plazo de seis meses desde la entrada en vigor de este decreto, transcurrido el cual quedarán sin efecto.

Disposición adicional segunda.- Inclusión de la variable “sexo” en la recogida de datos.

En cumplimiento de lo dispuesto por el artículo 16 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, las inscripciones en el registro de asociaciones de personas consumidoras y usuarias de Euskadi, así como cualquier otro documento de recogida de datos derivado de la aplicación de lo dispuesto por el presente decreto, deberán incluir la variable “sexo”, de modo que permitan la recopilación y explotación posterior de datos desagregados.

Disposición derogatoria.- Derogación normativa.

Quedan derogados el Decreto 249/1985, de 30 de julio, por el que se modifica el Decreto de 17 de agosto de 1981, sobre creación del Censo de Asociaciones de Consumidores, según lo establecido en la Ley sobre el Estatuto del Consumidor, así como cuantas disposiciones se opongan a lo dispuesto en la presente norma.

Disposición final.- Entrada en vigor.

El presente decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de País Vasco.

ERANSKINA

..../2020 DEKRETUA,aren(e)koa, EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak erregistratzeari buruzkoa.

EAEko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 30.a) artikuluan dago xedatuta ezen kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek, federazioek eta konfederazioek, arau aplikagarriek ematen dizkieten onurak izateko, egon behar dutela EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteen erregistroan inskribatuta. Horretaz gain, egoitza ere Euskal Autonomia Erkidegoan izan behar dute eta arau ezarritako baldintzak eta eskakizunak bete behar dituzte onuretariko bakoitza izateko. Horretarako, kontuan hartuko dira zer irizpide izan diren lurraldeka ezartzeko, zenbat elkartekide diren, eta zer-nolako jarduera-programa den.

Gaur egun, indarreko arauak uztailaren 30eko 249/1985 Dekretuan daude. Dekretu horren bidez aldatu zen Kontsumitzaileen Erakundearen Errolda sortzeari buruzko 1981eko abuztuaren 17ko Dekretua Kontsumitzaileen Estatutuari buruzko Legean xedatutakoaren arabera – estatutu hori azaroaren 18ko 10/1981 Legea garatzeko sortu zen–. Dekretu horrek, batetik, Kontsumo Zuzendaritzari atxikitzen zion errolda; baina, gaur egun, ez dago halako organorik Eusko Jaurlaritzaren egituran. Izan ere, zuzendaritza horren eskumenak Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari eskualdatu zitzaizkion ekainaren 29ko 9/2007 Legearen bidez. Lege horretan, batetik, erakunde autonomoa sortu zen eta, bestetik, elkarteak inskribatzeko baldintzak eta ondorioak arautu ziren, esate baterako: eskakizunetako bat da izatea gutxienez 100 kide eta gutxienez 100.000 pezetako urteko sarrerak.

Indarrean jarri zenetik igarotako denborari erreparatuta, araua eguneratu behar da, gaur egungo legera eta inguruabarretara egokitu ahal izateko, bai izendapena aldatzeko, bai inskripzioaren eskakizunak eta ondorioak arautzeko.

Xede horretarako, dekretu honek EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteen erregistroa Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari atxikitzen dio, erregistro administratibo, publiko eta doako gisa eratzen du eta telematikoki kudeatuko da.

Arauan aurreikusita dago kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteen erregistroan inskribatzeko eskatzen dutenek bete behar dituztela EAEko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legeak eta erregelamendu-arauek ezarritako eskakizunak.

Aipatutako legezko xedapen horrekin bat etorritik, dekretuak hauek hartzen ditu kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartetzat: bai zentzu hertsian irabazi-asmorik gabekoak izanik kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak babesteko eta defendatzeko helburua dutenak, bai kooperatiben legean arabera sortutako kontsumitzaile- eta erabiltzaile-elkarteak baldin eta bazkideak hezteko eta prestatzeko helburua badaukate nahitaez –horretarako funtsa bat eratu beharko dute nahitaez–, bai erakunde horiek sortutako federazioak eta konfederazioak.

Inskripzioa lortu ahal izateko, egoitza eta jardun-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dituzte kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek. Gainera, eskakizun hauek bete beharko dituzte: gutxienez 100 bazkide izatea kuotak edo ekarpenak ordainduta; bazkideei edo jendeari, oro har, eskura jartzea kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako arreta- eta informazio-zerbitzu bat, aurrez aurrekoa edo telematikoa, non beti egongo baita

harremanetarako telefono bat eta helbide elektroniko bat; eta, jardueretarako, urteko, 10.000 eurotik gorako aurrekontua izatea.

Halaber, inskripzio-eskabidea eta erantsi beharreko dokumentazioa daude araututa dekretuan. Eskabidea egin ostean, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Zuzendaritzak eman eta jakinaraziko du ebazpena lau hileko epean; epea amaitutakoan, baietsitakotzat hartuko da administrazio-isiltasunaren ondorioz.

Dekretuan dago zehaztuta zer datu jasoko diren erregistroko inskripzioan. Datu horiek aldatuz gero, elkarteek eman beharko dute horren berri hilabeteko epean. Halaber, ezarrita dago elkarteek nahitaez eskatu behar dutela erregistroko baja inskripzio-eskakizunak betetzeari uzten badiote. Horretaz gain, aurreikusita dago ofiziozko baja erabaki daitekeela hiru kasu hauetan: inskripzio-eskakizunak ez betetzea –eta, jakina, baja eskatu ez bada–; EAEko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 33. artikuluan adierazitako kasuetariko batean egotea; eta inskripzioan jasotako datuak aldatu eta ez jakinaraztea, edo 10. artikuluan xedatutako informazio-betebeharrak ez betetzea. Ofiziozko bajaren ebazpena emateko, lehenik, amaitu behar da elkarte interesdunaren entzunaldiaren prozedura izapidetzen.

Erregistroaren izaerarekiko koherentziari eusteko, inskripzioan jasotako datuak publikoak dira dekretuak hala dela deklaratu duelako.

Azkenik, 10. artikulua horretan dago xedatuta, batetik, inskribatutako elkarteek zenbait dokumentu aurkeztu behar dutela urtero, lehen hiru hilekoan, inskripzio-eskakizunei eusten dietela justifikatzeko xedez, eta, bestetik, oro har, nahitaez jarri behar dutela Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren eskura eskatzen zaien edozein informazio eta dokumentu, arauan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko xedez.

Lehen xedapen gehigarrian dago xedatuta ezen, dekretu honetan araututako erregistroan sartzeko, Kontsumitzaileen Erakundearen Erroldan –uztailaren 30eko 249/1985 Dekretuan araututa– inskribatuta dauden elkarteek ere bete behar dituztela dekretu honetan ezarritako eskakizunak; horretarako, beste inskripzio-eskabide bat egin beharko dute, laugarren artikuluan adierazi bezala, dekretu hau indarrean jarri eta sei hileko epean. Epe hori igarota, errolda zaharreko inskripzioek ez dute inolako efekturik izango.

Azkenik, dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian dago xedatuta ezen, dekretuak xedatutakoa aplikatzeko behar diren datuak jasotzeko dokumentuetan, sexuaren aldagaia sartu behar dela; xedapen indargabetzailean dago aurreikusita uztailaren 30eko 249/1985 Dekretua indargabetzea –dekretu horren bidez aldatu zen Kontsumitzaileen Erakundearen Errolda sortzeari buruzko 1981eko abuztuaren 17ko Dekretua Kontsumitzaileen Estatutuari buruzko Legean xedatutakoaren arabera–; eta azken xedapenean dago adierazita noiz jarriko den indarrean arau berria.

Dekretua honela dago egituratuta: 10 artikulua, bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat; edukiari begira: 1. artikuluan, arauaren helburua, erregistroaren izaera eta atxikipena, eta kudeaketaren izaera telematikoa daude ezarrita; 2. artikuluan, inskribatu beharreko elkarteak daude definituta; 3., 4. eta 5. artikuluetan, hurrenez hurren, eskakizunak, erregistroko inskripzio-eskabidea eta -ebazpena daude ezarrita; 6. artikuluan, erregistro-inskripzioaren edukia dago xedatuta; 7. artikuluan, inskripzioan jaso beharreko datuak daude aldatuta, eta 8. artikuluan, elkarteari erregistroan baja ematea; 9. artikuluan, erregistroko informazioaren publikotasuna dago araututa; eta, azkenik, 10.

artikuluari, inskribatutako elkarteek aurkeztu beharreko dokumentuak.

Horretaz gain, arauan badaude beste bi xedapen gehigarri ere: lehena, indarrean zegoela, Kontsumitzaileen Erakundearen Erroldan egindako inskripzioen eraginkortasuna galtzeari buruzkoa; eta bigarrena, datuak jasotzeko, sexuaren aldagaia sartu beharri buruzkoa. Horietaz gain, xedapen indargabetzaile bat, indarrean dagoen dekretua espresuki indargabetzeko; eta, azken xedapen bat, indarrean jartzeari buruzkoa.

Dekretu hau izapidetzeko, nahitaezko txostenak egin dira, honako hauek xedatutakoa betetzeko: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta, bestetik, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakia, zeinaren bidez onartu baitziren jarraibideak genero-inpaktuaren aurreiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen desberdintasuna ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko.

Ondorioz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2020koaren ...(e)(a)n egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau:

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedapen orokorrak.

1.– Dekretu honen xedea da: EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak erregistratzeko arauak ematea.

2.– EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartearen erregistroa administratiboa, publikoa eta doakoa da, eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari atxikita dago.

3.– Erregistroko eskabideak eta jakinarazpenak telematikoki kudeatu eta izapidetuko dira.

2. artikulua.– Inskribatu beharreko egintzak.

1.– Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartearen erregistroan inskribatuko dira EAEko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legeak eta dekretu honek ezarritako eskakizunak betetzen dituzten eta hala eskatzen dutenak.

2.– Dekretu honetarako, hauek dira kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak:

a) Elkartearen arloan indarrean dauden legeen arabera eratutako irabazi-asmorik gabeko elkarteak, baldin eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babestu eta defendatzeko helburua badute orokorrean edo produktu edo zerbitzu zehatz batzuei loturik.

b) Kooperatibei buruzko legeen arabera eratutako kontsumitzaile- eta erabiltzaile-erakundeak, baldin eta euren helburuetako bat bazkideak hezi eta prestatzea bada; gainera, eta horretarako funtsa eratzera behartuta daude lege espezifikoaren arabera.

c) Aurreko bi apartatuetako elkarte eta erakundearen federazio eta konfederazioak.

3.– Arau honek kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartei egiten dizkien erreferentzia guztiak, espresuki kontrakoa adierazi ezean, aurreko apartatuko erakundeei egindakotzat hartuko dira.

3. artikulua.– Inskripzioa egiteko eskakizunak.

1.– Inskripzioa egiteko, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek eskakizun hauek bete behar dituzte:

a) Egoitza eta jardun-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

b) Gutxienez 100 bazkide izatea kuotak edo ekarpenak ordainduta.

c) Bazkideei edo jendeari, oro har, eskura jartzea kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako arreta- eta informazio-zerbitzu bat, aurrez aurrekoa edo telematikoa, non beti egongo baita harremanetarako telefono bat eta helbide elektronikoa bat.

d) Jardueretarako, urteko, 10.000 eurotik gorako aurrekontua izatea. Kooperatiben kasuan, aurrekontua bazkideen heziketarekin eta prestakuntzarekin lotutako jardueri buruzkoa izan behar da, horretarako eratutako funtsaren kargura.

2.– Elkarten federazio edo konfederazioen bat inskribatzeko eskatzen bada, artikulua honetako eskakizunak betetze aldera, kontuan hartuko da zenbat bazkide diren, zer jarduketa dagoen arreta- eta informazio-zerbitzuan, eta zer jarduera egin duten, oro har, federazio edo konfederazio horiek osatzen dituzten elkarte edo federazioetan.

3.– Ezin izango dira inskribatu Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 33. artikuluan adierazitako kasuetariko batean dauden elkarteak.

4. artikulua.– Inskripzio-eskabidea

1.– EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarten erregistroan inskribatzeko, elkarte interesdunak behar den eskabidea aurkeztu behar du.

2.– Eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Erakundearen eratze-agiria eta estatutuak; federazioak edo konfederazioak badira, eratze-erabakiak eta bakoitza osatzen duten elkarten edo federazioen estatutuak ere bai.

b) Erakundearen idazkariaren ziurtagiria, non jasoko baita presidentearen oniritzia eta egiaztatuko baita dekretu honen 3. artikuluan adierazitako eskakizunak betetzen direla eta, zehatz-mehatz, hau:

1) Elkartearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

2) Elkartearen egoitza eta, halakorik izanez gero, ordezkariak.

3) Elkartearen artezkaritza-organoen osaera, eta organo horiek osatzen dituzten pertsonen identifikazio fiskaleko zenbakia.

4) Zenbat diren kuotak edo ekarpenak ordainduta dauzkaten elkartekideak.

5) Kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako arreta- eta informazio-zerbitzuaren identifikazioa, hauek adierazita: baliabide elektronikoa, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa eta, hala badagokio, erabilitako instalazioak non dauden.

6) Sarrera-gastuen urteko aurrekontua, hauek adierazita: sozietatearen urteko kuoten zenbatekoa zentzu hertsian elkarteak badira, eta bazkideen heziketa- eta prestakuntza-helburuetarako funtsaren zenbatekoa, kooperatiben kasuan.

7) Zenbateko kuota ordaindu behar duten elkartekideek urteko.

8) Urteko jardueren memoria. Kooperatiba bat denean, memoria hori bazkideen heziketarako eta prestakuntzarako egindako jarduerari buruzkoa izan behar da, xede horrekin eratutako funtsaren kargura.

9) Hala badagokio, zer federazio edo konfederaziotakoa den.

3.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, aurreko apartatuko dokumentu horiek ez dira aurkeztu beharko egoera hauetan:

a) Dokumentuok Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak badauzkanean.

b) Dokumentuok beste edozein administrazio egin dituenean, baldin eta elkarteak uko egin ez badio dokumentuok kontsultatuak edo eskuratuak izan daitezten.

c) Dokumentuok beste administrazio bati aurkeztu zaizkionean, baldin eta elkarteak espresuki adierazi ez badu beste administrazio batek eskuratzearen aurka dagoela, edo aplikatzekoa den lege berezi batek horretarako adostasun espresua eskatzen ez badu. Horretarako, elkarteak adierazi behako du noiz eta zer administrazio-organori eman zizkion dokumentuok.

4.– Salbuespen gisa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak ezin baditu dokumentu horiek eskuratu, elkarteari berari eskatu ahal izango dio emateko.

5. artikulua.– Inskribatzeko ebazpena.

1.– Eskabidea osorik ez badago, 10 egun balioduneko epea emango zaio elkarteari konpontzeko, eta ohartaraziko zaio ezen, izapidetzen amaitu ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.

2.– Elkarteak inskribatzeko behar diren eskakizun guztiak bete badira eskabidean, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Zuzendaritzak emango du horretarako ebazpena.

3.– Elkarteak ez badu betetzen eskakizunen bat, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Zuzendaritzak inskripzioa ukatuko dio ebazpen ziodun baten bidez.

4.– Ebazpena eman eta jakinarazteko epea lau hilekoa da, eskabidea Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren erregistro elektronikoan sartzen denetik aurrera.

5.– Ez bada epe horretan ebazpena jakinarazten, baietsitakotzat hartuko da administrazio-isiltasunaren ondorioz.

6. artikulua.– Inskripzioaren edukia.

Elkartearen inskripzioan, datu hauek jasoko dira:

a) Elkartearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia, adierazita hauetariko bat den: zentzu hertsiko elkarte bat, kooperatiben legeen arabera sortutako erakunde bat, edo aurreko horiek osatutako federazio edo konfederazio bat.

b) Erregistroko inskripzio-zenbakia.

c) Jarduteko lurralde- eta funtzio-esparrua, hau adierazita: kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko helburu hori orokorra den edo produktu mota edo zerbitzu zehatz batzuei loturik dagoen.

d) Elkartearen artezkaritza-organoen titularren izen-abizenak.

e) Zenbat diren kuotak edo ekarpenak ordainduta dauzkaten elkartekideak urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

f) Zenbateko kuota ordaindu behar duen elkartekide bakoitzak urteko.

g) Zer arreta- eta informazio-zerbitzu eskaintzen zaien kontsumitzaile eta erabiltzaileei, hauek adierazita: baliabide elektronikoak, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa eta, hala badagokio, erabilitako instalazioak non dauden.

h) Hala badagokio, zer federazio edo konfederaziotakoa den.

i) Noiz inskribatu den elkartean; halakorik izanez gero, noiz izan duen aldaketarik, eta noiz eman duen baja erregistroan.

7. artikulua.– Inskripzio-datuak aldatzea.

1.– Erregistroan inskribatutako kontsumitzaile- eta erabiltzaile-elkartek Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari eman behar diote inskripzio-datueta egiten duten edozein aldaketaren berri; aldaketa horiek ez dute izan behar inskripziorako behar diren eskakizunetako bat galtzea eragin dezakeen bat ere.

2.– Aldaketen jakinarazpenarekin batera, aldaketaren egitatea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da.

3.– Jakinarazpena aurkezteko epea hilabetekoa izango da aldaketa egiten den unetik aurrera.

8. artikulua.– Elkarteari erregistroan baja ematea.

1.– Inskripziorako eskatutako eskakizunetako bat galduz gero, erregistroko baja eskatu beharko du elkarteak dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorriz.

2.– Eskabidea hilabeteko epean egin beharko da baja eragiten duten egitateak sortzen direnetik hasita.

3.– Baja erabakitzeko, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Zuzendaritzak emango du ebazpena, zeina eman eta jakinarazi beharko baita hiru hileko epean, eskabidea erakunde autonomoaren erregistro elektronikoan sartzen denetik hasita. Ez bada epe horretan ebazpena jakinarazten, baietsitakotzat hartuko da administrazio-isiltasunaren ondorioz.

4.– Erregistroko baja ofizioz ere agindu ahal izango da egoera hauetan:

a) Inskripzioko elkarteak inskripzio-eskakizunak betetzeari utzi badio, dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorritz.

b) Egiaztatzen bada elkartea dagoela EAEko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 33. artikuluan adierazitako egoeretako batean.

c) Elkarteak ez baditu betetzen dekretu honen 7. eta 10. artikuluetan ezarritako betebeharrak.

5.– Hala bada, baja ematea erabaki ahal izango da Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Zuzendaritzak emandako ebazpen ziodun baten bidez, eraginpeko elkarteari entzunaldiaren izapidea egin ostean.

9. artikulua.– Erregistroko informazioaren publikotasuna.

1.– EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteen erregistroan inskribatzeko eman beharreko datuak publikoak dira.

2.– Pertsona interesdunak eskatuta, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Zuzendaritzak egiaztatuko du erregistroko inskripzioen edukia.

10. artikulua.– Inskribatutako elkarteen informazio-betebeharrak.

1.– Inskribatutako kontsumitzaile- eta erabiltzaile-elkartek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute urte natural bakoitzeko lehen hiruhilekoan:

a) Aurreko urtean egindako jardueren deskripzio-memoria.

b) Aurreko urteko sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa.

c) Uneko urterako programatutako jardueren memoria.

d) Uneko urteko sarrera-gastuen aurrekontua, hauek adierazita: sozietatearen urteko kuoten zenbatekoa, eta kooperatiben kasuan, helburu horietara bideratutako funtsaren zenbatekoa.

e) Zenbateko kuota ordaindu behar duen elkartekide batek urteko.

f) Zenbat diren kuotak edo ekarpenak ordainduta dauzkaten elkartekideak urtarrilaren 1ean.

2.– Inskribatutako kontsumitzaile- eta erabiltzaile-elkartek eskura jarriko diote Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari edozein informazio eta dokumentazio, dekretu honetan xedatutakoa betetzeko eskatzen baldin bazaie.

3.– Kooperatiben kasuan, aurreko paragrafoetan adierazitako dokumentuak bazkideen heziketa- eta prestakuntza-jardueraren esparrura eta xede horretarako funtsera mugatuko dira.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Kontsumitzaileen erakundeen indarreko errolda.

1.– Dekretu hau indarrean jartzen denean, uztailaren 30eko 249/1985 Dekretuak araututako Kontsumitzaileen Erakundeen Erroldan inskribatuta dauden elkarteak, nahi badute

EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteen erregistroan sartu, dekretu honetako eskakizunak bete beharko dituzte, eta inskripzio-eskabidea egin 4. artikuluan adierazitakoaren arabera (uztailaren 30eko 249/1985 Dekretuak Kontsumitzaileen Erakundeen Errolda sortzeari buruzko 1981eko abuztuaren 17ko Dekretua aldatu zuen Kontsumitzaileen Estatutuari buruzko Legean xedatutakoaren arabera).

2.– EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteen erregistroan inskribatzeko eskabidea egiteko epea sei hilekoa izango da dekretua indarrean jartzen denetik hasita.

3.– Inskribatzeko prozedura ebazteko, kontuan hartuko da 5. artikuluan xedatutakoa; hala ere, ebazpena eman eta jakinarazteko epea sei hilekoa izango da.

4.– Uztailaren 30eko 249/1985 Dekretuan arautako Kontsumitzaileen Erakundeen Erroldako inskripzioek eraginkortasun osoa izango dute dekretua indarrean jarri eta sei hileko epean; baina, epe hori igarota, ez dute inolako efekturik izango.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Datuak jasotzeko, sexuaren aldagaia sartzea.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 28ko 4/2005 Legearen 16. artikulua xedatutakoari jarraikiz, EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteen erregistroan egindako inskripzioetan eta dekretu honetan xedatutakoa aplikatzeko datuak biltzeko bestelako dokumentu guztietan, sexuaren aldagaia sartu beharko da, halako moldez non datuak bereizita jasotzeko eta ustiatzeko bidea izango baita.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.– Arauak indargabetzea

Honako hauek indargabetzen dira: uztailaren 30eko 249/1985 Dekretua –honen bidez aldatu zen Kontsumitzaileen Erakundeen Errolda sortzeari buruzko 1981eko abuztuaren 17ko Dekretua Kontsumitzaileen Estatutuari buruzko Legean xedatutakoaren arabera–, eta arau honetan xedatutakoaren aurka egiten duten xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.